Jon Kortaberria Lopetegi



B maila • **1 saria**

Kaixo, Jon Kortaberria Lopetegi nauzu, eta gauza xelebre bat gertatzen zait. Musika entzutea asko gustatzen zait, baina melodiak sortzeak ez nau erakartzen. Pelikulak ikustea ere gogoko dut, baina zinelanetan ibiltzeko ez dut inolako grinarik. Berdin gertatzen zait bideojokoekin eta margolanekin. Produktuaz gozatzen dut, baina sorkuntza prozesuan parte hartzeak ez nau batere erakartzen. Literatura da erregela honen salbuespen bakarretarikoa, irakurle txarra izan arren idaztea gustatzen zaidalako. Hitz lerroz eta paragrafoz beteriko orri batekin aurrez aurre nagoenean berehala aspertzen naiz, baina papera hutsik, zuri, biluzik ikusten dudanean, hura hitzez betetzen tematzen naiz.

Susmatzen dut, niri ez bezala, zuri produktu literarioak gustatzen zaizkizula, bestela ez zinateke biografia hau irakurtzen arituko. Nire susmoak egia ala gezurra izan, nere idazlana irakurtzera gonbidatzen zaitut, espero dut gustoko izatea.

HEGALIK GABEKO TXORIEN HABIA

Hegalik gabeko txorien antzekoak gara,
aitzakiak gordelekutzat hartu eta
habian izkutatzen direnetakoak,
hegan egiten saiatu baino
saltoka ibiltzea nahiago dutenetakoak.

Hobetzen saiatu? Zertarako?
Hurrengoak hobeto egingo du eta...
Zerbaiten aurka matxinatu? Zertarako?
Ez duzu eta ezer lortuko...
Gustoko duzuna ikasi? Zertarako?
Ez duzu eta lanik izango...
Maite duzuna maite? Zertarako?
Ez du eta betirako iraungo...

Errazagoa da beste alde batera begiratu
eta beti horrela izan dela esatea,
ez duela merezi, ez duela balio
errepikatzearekin batera,
besterik gabe, gauzak horrela
zerbaitegatik direla arrazoituz.

Zergatien bila, erantzunen gosez
eta egiaren egarriz
hil dira hegan egin nahi zuten
hegal gabeko hainbat txori,
zabarkeria eta ezjakintasunak itota

Agintaritzat begiokerrak ditugun
itxuen mundu honetan,
gauzak zalantzan jarri beharrean
esanekoarekin konformatzen garen gizarte honetan,
arazoei aurre egin beharrean
aitzakien atzean izkutatzen garenon artean,
nola bizi iraungo du bada, hegan egin nahi duen txoriak,
berak hegan egitea nahi ez dutenen habian?